



**EBAZPENA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA,**  
**[REDACTED] JAUNAK AURKEZTUTAKO**  
**BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.**

---

**Ber. Esp.: 34/2014**

**AURREKARIAK**

[REDACTED] jaunak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu du (77940 zenbakiarekin erregistratu da), Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek 2014ko abenduaren 22ko saioan hartutako erabakiaren aurka.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENENGOA.-** 14/1998 Legearen 138 a) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikulua araberak, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsorik hau aztertzearen eskumena.

**BIGARRENA.-** Aztergai ditugun errekurtsoren jatorria erreklamazioak dira; Zumaian otsailaren 22an izandako proba Euskaldun 2014 torneorako baliozkoa ez izateko eskatzeko erreklamazioak aurkeztu zituen errekurtsogileak Diziiplina Batzordean

eta, gero, Apelazio Batzordean, zeren proba horretan 1995. urtean jaiotako txirrindulariek parte hartzeko aukera izan zuten - guztizkoaren heren bat izan ziren-, erregelamenduan xedatutakoa urratu zen.

Errekurtso horiek ez zuten erantzunik jaso; horregatik, epaitutako errekurtsoa aurkeztu zuen Kirol Justiziako Euskal Batzordean eta orain berraztertzeko errekurtsoa ere aurkeztu du.

**HIRUGARRENA.-** Errekurtsogileak bazekien 2013. urteko eta 2014. urteko Euskaldun torneoko erregelamenduen arabera debekatuta zuela proban parte hartzea; beraz, Batzorde honek errekurtsoa ez onartzea erabaki zuen, legitimazio aktiborik ez izateagatik, probaren emaitzak aurkaratzeko interes legitimorik ez zuelako eta egiaztatu ez zuelako.

**LAUGARRENA.-** Berraztertzeko errekurtsoa honako arrazoi hauetan oinarritzen du:

**1.-** 30/1992 Legearen 31.1.c) artikularen babespean, interesdun den aldetik, zeren, haren arrazoiaren arabera [“(...) Euskadiko txirrindulari amateurren kolektiboko kide naizenez (Elite kategoriako nire lizentziarekin egiaztatu dut egoera hori) badut interes legitimorik Euskaldun torneo indarreko legeriaren arabera izan dadin, eta aztergai dugun proban ez zen horrelakorik gertatu”]; eta,



**2.-** Auzitegi Gorenaren 1999ko apirilaren 28ko Epaiari atxikita, haren ustez legitimazio orokorra onartzen da prozeduran esku hartzeko, "(...) legezkotasunaren interesa bera nahikoa baita legitimazioa izateko (...)".

**BOSGARRENA.-** Aurkaratzeko bi arrazoi horiek ezin ditugu aintzat hartu.

Jurisprudentzia irmoaren arabera –Auzitegi Gorenaren 1984ko urriaren 9ko Epiaiaz geroztik-, interes legitimoa zera da, "baliatutako asmoaren estimazioaz onurarik izan dezakeen interes moral edo material mota oro, **betiere legezkotasunerako interes soila ez denean**".

Horretaz gain, interes legitimoa banakakoa edo kolektiboa izan daiteke; baina 30/1992 Legean, ordea, ez da zuzenean onartu interes ekonomiko eta sozialen ordezkari diren elkarte eta erakundeen interes legitimo kolektiboen titulartasuna, baizik eta, aitzitik, lege-mailako arau bati atxikitzen zaio eta arau horrek onartu beharko du, kasuan kasu eta dagokion eremu material zehatzean, elkarte eta erakunde horien legitimazioa.

Ildo beretik, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 31.2 artikulua arabera, Ekonomiaren eta gizartearen interesen ordezkari diren elkarte eta antolakundeak bidezko talde-interesen



titularrak izango dira legeak aitortutako moduan. Beraz kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria sektoriala hartu beharko da aintzat elkarte edo erakunde bat prozedura jakin batean parte hartzeko legitimatuta ote dagoen erabakitzeke; baina gure kasua ez da horrelakoa, eskatu duena bazkide bat baita, ez federazioa edo beste elkarteren bat.

Auzitegi Gorenaren 1999ko apirilaren 28ko Epaia –2352/1993 errekurtsio-zenbakia, 2871/1999 epaia- ere ez da orain aztertzen ari garen kasuaren parekoa, hirigintzari buruzkoa baita eta gai horretan ekintza publikoa onartuta baitago. Zuzenbideko laugarren oinarriaren pasarte batek dioenez, "(...) Lurzoruaren Legearen Testu Bateginaren 235. artikuluan onartzen den ekintza publikoak Jurisdikzio Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan bildutako legitimazioari buruzko arauak salbuesten ditu, eta beraz, pertsona batek ez du gaian zuzeneko interesik izan beharrik hirigintza-arloko administrazio-egintzak eta -xedapenak baliogabetzeko eskaera egin ahal izateko; horrenbestez, ez du zentzurik horri buruz ikertzea, legeak ahalbidetu baitu legezkotasunerako interes soila nahikoa izatea legitimazio aktiboa izateko. Hori horrela izanik, ekintza publikoa ezin da desnaturalizatu kontrako aldeak gaian interesik ez duela alegatuta (...)".

Horren guztiaren ondorioz, Zumaian izandako probaren emaitzarekin eta emaitza horrek Euskaldun 2014 torneoan izan dezakeen eraginarekin onura izan dezakeen interes legitimorik ez du Batzordeak.



Aurreko hori guztia aintzat hartuta, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek honako hau

### **EBATZI DU**

██████████ jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ezestea; errekurtso hori Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek 2014ko abenduaren 22ko saioan hartutako erabakiaren aurkakoa da, eta ebazpen honen ondorioz, erabaki horren eduki osoa berretsi da.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 9a

**AGURTZANE ZANGITU OSA**



Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea